

1286/2020 Ebazpena, Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearena, balorazio batzordea izendatzen duena, Obstetria eta Ginekologiako atalburu lanpostua (Obstetria atalekoa) betetzeko erakunde honetan.

Zuzendaritza Gerentzia honen otsailaren 6ko 108/2020 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa iragarri zen, erakunde honetako Obstetria eta Ginekologiako atalburu lanpostua (Obstetria atalekoa) lehiaketa bidez betetzeko (2020ko ekainaren 10eko 113. EHAAn eta 2020ko ekainaren 16ko 168 eta 2020 uztailaren 1eko 181.. BOEn argitaratua).

Aipatutako ebazpenaren 5. oinarriak ezartzen zuena kontuan hartuz, zuzendaritza gerentziak Balorazio Batzordearen kideak izendatuko ditu.

Balorazio Batzordearen lehendakaria zuzendari medikoa izango da, eta batzordekideak honakoak izango dira: zuzendariorde medikoa, pertsonaleko zuzendaria (idazkaria izango da), eta hiru kide (horietako bat IVAPek izendatuta). Azken horiek hautagaiei eskatutako titulu eta espezialitatea izango dute, eta finkoak, estatutupekoak, funtzionario edo lan kontratadunak izango dira, kategoria berean edo goragokoan.

Titular den kide bakoitzeko ordezkari bat izendatuko da.

Azaldutakoagatik, eta Osakidetzaren Estatutu Sozialetako 15.1.e artikulua zuzendari gerenteoi ematen dizkigun eskumenez baliatuta (azaroaren 11ko 255/97 Dekretua), eta oinarriak betetzeko, honakoa


EBAZTEN DUT

Lehenengoa. - Balorazio Batzordeko partaideak izendatzea, erakunde honetako Obstetria eta Ginekologiako atalburu lanpostua (Obstetria atalekoa) betetzeko. Zerrenda I eranskinean jasota dago.

Bigarrena. - Ebazpen hau argitaratzea, Osakidetzako web orrian eta zerbitzu erakunde honetako intranetean.

Ebazpen honen kontra Osakidetzako zuzendari nagusiari zuzendutako gorako helegitea aurkeztu ahal izango da, jakinarazpena jaso eta, biharamunetik hasita, hilabeteko epean, betiere, kontuan hartuta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

Donostian, 2020ko azaroaren 11n

 Osakidetza
ZUZENDARI GERENTEA
E. Pertsonaleko zuzendaria
(53/2019 Ebazpena, uztailaren 24koa)
DONOSTIALDEA
OSI DONOSTIALDEA
PERTSONALEKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAL
Izpta.: Esther LITAGO SOLA

I ERANSKINA

Obstetrizia eta Ginekologiako atalburu lanpostuaren (Obstetrizia aatalekoa) Balorazio Batzordea.

Epaimahaiburua

Titularra: Miren Idoia Gurruchaga Arriola (zuzendari medikoa - Donostialdeko ESI)
Ordezkoa : Ana Calvo Aguirre (Medikuntza Arloko Asistentzia Koordinatzeko – Goierri Urola - Garaiko ESI)

Idazkaria

Titularra : Esther Litago Sola (pertsonaleko zuzendaria - Donostialdeko ESI)
Ordezkoa : Pilar Sánchez Garduño (pertsonaleko zuzendaria - Bidasoako ESI)

Lehenengo kidea

Titularra: Adolfo Beguiristain Gomez (zuzendariorde medikoa- Donostialdeko ESI)
Ordezkoa: Xabier Goicoechea Iraola (zuzendariorde medikoa- Donostialdeko ESI)

Bigarren kidea

Titularra: Arantxa Lekuona Artola (Obstetrizia eta Ginekologiako zerbitziburua - Donostialdeko ESI)
Ordezkoa: Rosa Larrieta Riaño (Obstetrizia eta Ginekologiako atalburua – Ezkerraldea – Enkarterri - Cruces ESI)


Hirugarren kidea

Titularra: Mercedes Fraca Padilla (Obstetrizia eta Ginekologiako atalburua - - Bilbo – Basurtu ESI)
Ordezkoa: Carmen Alvarez Leal (Obstetrizia eta Ginekologiako atalburua - Goierri-Urola Garaiko ESI)

Laugarren kidea (IVAPEk proposatuta)

Titularra: Jose Ramón Serrano Navarro (Obstetrizia eta Ginekologiako zerbitziburua – Debagoieneko ESI)
Ordezkoa: Jose María Aritzeta Iraola (Obstetrizia y Ginecokologiako zerbitziburua – Barrualde – Galdakao ESI)

Donostian, 2020ko azaroaren 11n


Osakidetza
ZUZENDARI GERENTEA
E. Pertsonaleko Zuzendaria
(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa)
DONOSTIA - ERRIKUI
PERTSONALEKO ZUZENDARIA
DIRECCIÓN I.
Izpta.: Esther LITAGO SOLA